

## JOSE MARI LARRARTE (1926 - 2004)

Joan den urriaren 25ean, Urretxuko pasiotarren elizan, azken agurra egin genion egun bi lehenago hila zen Jose Mari Larrarte euskalari zintzoari. Lagun asko bildu ginen eliza hartan eta, halakoetan egin ohi diren gogoeten artean, honako iruzkin hau entzun nien inguruan nituen guztiei: langile isila baina nekagaitza izana zela Jose Mari bere bizitza guztian; isila, baina emaitzetan oparoa.

Euskaltzaindiko Gramatika batzordean urte luzetan haren lankide, eta lagun, izana naizenez, niri egokitu zait hilberri-txosten hau idaztea eta haren oroitzapena gaur zuen aurrera ekartzea. Esan beharrik ez daukat gogoz egingo dudala.

\* \* \*

JOSE MARI LARRARTE GARMENDIA Bidaniam jaio zen, «haize handiak ibiltzen diren» Gipuzkoako goi hartan, 1926ko urtarrilaren 4an. Gaztetan joan zen pasiotarretara, osaba pasiotar baten eskutik, eta han fraideen bizitzan ohikoa zen ibilbidea egin zuen.

Ikasketak bururatu eta apaiz eginik, urtebete Gabirian irakasle egon ondoren, Afrikara joan behar izan zuen, Melillara, soldadu. Denbora alferrik samar galtzeko lekua izaten zen maiz soldadutza, baina Jose Mari ez zen alferkerian egon: soldadu eskolagabeei eskola ematen aritu zen, eta, apaiza zenez, baita kristau doktrina irakasten ere. Lan hori eginez bete zuen, bestela hutsean joango zitzaion alferreko urtea.

Handik etorrita, irakasle jarri zuten berriro agintariek, bere bizitzaren zatirik handiena beteko zuen zereginen.

Hiru aldi handi bereiz daitezke Jose Mariren ibilbide profesionalean: lehenbizikoa, gaztetxoan irakasle, pasiotarren ikastetxeetan batez ere (1951-1976); bigarrena, helduen irakasle Iruñean (1976-1981); eta hirugarrena, itzultzaile Gasteizen (1981-1991).

Aurrena, bada, pasiotarren ikastetxeetan jardun zuen. Gizon ikasia zenez, gai bat baino gehiago irakastea tokatu zitzaion. Latina, grekoa eta beste zenbait gai irakatsi zituen (1). Laster ekin zion, halere, gogobeteko zuen lanbideari, euskararen irakaskuntzari. Horrela aitortu zion Juan Luis Goikoetxeari, honek *Karmel* aldizkarian esaten di-

---

(1) Txosten hau Euskaltzaindiko bileran irakurri nuenean Jose Mari Iriondok esan zidanez, frantsesa eta gregorianoa ere irakatsi omen zituen Jose Mari Larrartek; oso trebea omen zen musika gregorianoaren irakaskuntzan.

gun moduan (2): «Bizitzan egin diran gauza guztien artean, harrotasuna euskara irakasteagaitik, hor mugitu naz ni eta». Horrela dio, halaber, Jose Mari hil zenean, kongregazioko arduradunak pasiotarrei bidali zien agiriak ere: «A partir de este año –lehen meza eman zuen urtetik aurrera, alegia– el P. Luis Mari –izen hori zuen, antza, kongregazio barruan– se dedicará básicamente a la enseñanza, a la educación y a la investigación de *temas euskérico[s]*, principalmente al estudio de la gramática euskelduna y todos los destinos que recibió giran casi en su totalidad en torno a esta actividad».

Hasieran, Gabiriako eta Eubako ikastetxeetan aritu zen euskara irakasle.

Nik Gramatika batzordeko bileretan ezagutu nuen aurrez aurre Jose Mari. Baina, elkarren berri gehiago izan genuenean, ohartu nintzen aspalditik egina nuela haren ezagutza, zeharka eta oharkabean bada ere. Erroman ikasle nintzela, euskaldun batzuk biltzen hasi ginen, geure euskara traketsa txukundu eta hobetzeko asmotan. Norbaitek –ez dut gogoan nork, baina gerora pasiotarren nagusi jenerala izango zen Jose Agustin Orbegozo izan zela uste dut– euskal aditza ikasteko orri batzuk ekarri zizkigun. Hain konplexua eta askorentzat zaila den aditzaren morfologia modu egokian ikasteko bidea eskaintzen zuten orri haiek. Ohikoa zen urte haietan euskaldunek, euskara lantzen hasita, aurren-aurrena aditzaren paradigma konplexuak ikasteari ekitea. Eta ikasbide bat baino gehiago sortu zen horretarako. Orri haiek ere horixe zuten helburu: aditz-morfologiaren bideetan barrena aise eta lasai ibiltzeko modua eskaintzea; morfemekin jokatzu, *nuen-etik nien, nizkien eta nizkieke* formetara, edo *nauzu*—tik *ninduzun, nazazun, nintzazun* edo *nazakezu* formetara erraz eta eroso pasatzen erakustea. Aspaldi galduak ditut orri haiek; ez zait ahaztu, ordea, hain egokiak izanik, zein laguntza handia eskaini zidaten. Eta beste zerbait ere badut gogoan: egile-izenik gabeko orriak zirela. Inork eginak ez balira bezala ibili ziren, antza, eskutik eskura. Gerora jakin dut Jose Mariren eta beste lankide batzuen lanaren emaitza zirela (3). Haiek beren ikasleentzat egin eta, gero, hortik zehar zabaldu zirela.


Jose Mariren lanaren erakusgarri delako ekarri dut gogora gertakari hori. Hor ikusten baitira argi haren lanak, bere bizitza guztian, izan zituen ezaugarri bi: praktikotasuna eta apaltasuna. Helburuari zuzen lotzen zitzaion irakaskuntza zen harena: ikasle euskaldunek etxetik zekarten euskara, aurrerantzean jakinaren gainean eta, behar bazen, zuzenduta menderatzea zen orri haien helburua, eta hartara jotzen zuten zuzenean, bestelako azalpen eta betelanean nahasi gabe. Eta apaltasuna, bestalde. Ez zen Jose Mari bere burua erakutsi zalea. Ez zen ohore-gose eta txalo-bila ibiltzen diren horietakoa. Besteei eskainitako zerbitzua, horixe zuen nahiko sari.

Irakasle utzi dugu, bada, Jose Mari, pasiotarren Gabiriako eta Eubako ikastetxeetan. Euban batxiler-ikasketen arduraduna izan zen, eta, beste lan askoren artean, euskara ikasteko unitateak emendatu egin zituen. Ez hori bakarrik. Ikasleak euskaraz idazten treba zitezen aldizkariak sortu zituen: *Bidez* izenekoa ikastetxe barnerako eta *Laiaketan* izenekoa kanporako. Berak *Ilaunbe* eta *Lur-Gar* ezizenak erabili zituen.

(2) Juan Luis Goikoetxea Arrieta: «Jose Mari Larrateri», *Karmel*, 248.zenb., 2004-4.

(3) Jose Mariren lehengusu Aita Sarasola ere tarteko izan omen zen lan horretan, Juan Jose Zeareetak jakinarazi didenez.

Hazia ereitea ere bada, jakina, irakaslearen lana, hau da, irakasten diren gaietarako zaletasuna sortzea ikasleengan. Jose Mariaren orduko ikasleek artean badira euskara eta kultura-munduan lan ona egin dutenak eta egiten ari direnak, bat baino gehiago. Haien artean daude, esate baterako, Jose Mari Iriondo eta Jose Mari Zeberio kazetari ezagunak, Amerikako Estatu Batuetan irakasle ari den Joseba Zulaika, Xabier Mendiguren Bereziartu euskalaria, Euskaltzaindi honetan ari diren Ricardo Badiola eta Juan Jose Zearreta eta beste asko eta asko. Zerbait esateko balukete horiek, seguru, Jose Mariaren lanari buruz...



Euban hamabi bat urte egin ondoren Iruna bidali zuten, osasunagatik, atsedena hartzeko agindu baitzion medikuak. Atsedena hartuko zuten, beharbada, bai, Irunen igarotako urtean, baina ez zen egonean egon han ere. Jose Mari ez zekien geldi egoten. Ikastola sortzeko ahaleaginean zebiltzan irundar batzuk, eta haiekin aritu zen bera ere. «Ni beti ibili naz beharrean» aitortu zion Juan Luis Goikoetxeari, aipatu elkarrizketan.

Irundik, berriz, Urretxura joan zen, han ere, besteak beste, ikastolako irakasle izatera. Euskara eta kristau doktrina irakatsi zituen han zortzi urtez. Ez hori bakarrik: orduko gaztea ez bazen ere, goi mailako ikasketak egiteari ekin zion, aspaldi bereganatua zuen euskararen ezagutza sakonari jakintza eta oinarri sendoagoak emateko. Filologia Erromanikoa ikasi zuen, Donostian, Deustuko Unibertsitatean. Egunez irakasle ikastolan eta arratsean ikasle Unibertsitatean, eguna ondo betetzeko. «Ni beti ibili naz beharrean», orduan ere.

Urretxun zegoela, Iruñetik hartu zuen deia. Eta orduan hasi zen Jose Mariaren ibilbide profesionalaren bigarren aldi nagusia. Udako ikastaroak antolatuz eta eskolak ematera joateko eskatu zioten. Nafarroako Diputazioak eratzen zituen Alfabetatze-ikaslaro horiek eta Jose Mari aukeratu zuten antolatzaile eta irakasle. Urte askotan jardun zuen lan horretan. Gero, berriz, 1977tik aurrera ardura berriak izan zituen Nafarroako hiriburuan. Irakasle Eskolako Euskararen katedraren arduraduna izan zen lau urtez, 1977 urtean hasita; eta Hizkuntza Eskolako irakaslea ere izan zen, hau sortu zenetik, hau da, 1977 urtetik aurrera. Eskola horretarako material didaktikoa ere sortu zuen, *Euskara Bizitik* izenekoa.

Gogotik eta sasoi betean aritu zen Jose Mari Iruñeko aldi horretan. Gerora, pozik gogoratzen zituen han pasatako urteak. Egoera berezia zen ordukoa: frankismoaren tunel luzetik irten berriak, zabal zebilen euskaltzaletasuna; gogo bizia agertzen zuten ikasle askok euskara ikasteko. Eta jakina da ez dagoela motibazioa bezalako lagungaririk irakaskuntzan gustura aritzeko.

Gogoan itsatsita geratu zitzaion Jose Mariri Iruñeko aldi hori. Askotan aipatzen eta berritzen zuen lagunekin zituen solasetan.

\* \* \*

1980an Gasteizko aldia hasi zuen. Itzultzaile lanetan murgildu zen handik aurrera, irakasle lanik handienak eginda, artean Bergarako UNED-en eskola batzuk eman bazituen ere. Iruñera bezala Gasteizera ere bestek deituta joan zen. Ohargarria da hori: bera ez zen inoiz postu bila lehiatu. «Nik ez dot goserik emon toki bila», esan zion Juan Luis Goikoetxeari. Gasteizera Josu Oregik deitu zuen, Legebiltzarreko itzultzaileen arduradunak. Euskara ondo menderatzen zutenak behar zituen lan berri eta garrantzitsu horretarako, eta ez zuen batere zalantzarik izan: Jose Mari aukeratu zuen, beste batzuekin batera. Hamar urte egin zituen Legebiltzarrean lanean, erretiroa hartuko hamar urteak. Lehenbiziko bostak itzultzaile, bai bat-batekoa bai testu idatzita-koa ere, eta beste bostak testu idatzien zuzentzaile.

Horretan ari zela, Euskal Filologiako ikasketak bururatu zituen Gasteizko Fakultatean, 1985ean.

Erretiroa hartuta ere ez zuen atsedenerako asti handirik izan: Erromara bidali zuten agintariek, artxibistika ikastera urtebetez. Handik Deustura etorri zen, kongregazioko artxiboan lan egitera. Eta hortxe bete zen Jose Mari Hegoaldeko lau lurraldeetan zehar egindako ibilbidea: Bizkaian eta Gipuzkoan hasi zen; handik Iruñera joan zen; Gasteizen jarraitu zuen; eta Bizkaira itzuli zen, azkenean, zikloa amaitzeko. Erretiroa hartuta ere, berriro ibili zen Tafalla, Gasteiz eta Deustura bueltan. Hegoaldeko Euskal Herria ondo ezagutzeko moduan izan zen.

Irakasle, itzultzaile, artxibista..., ondo betea izan zuen beti, esan bezala, eguna. Denbora gutxi geratzen zitzaion, tamalez, gustuko zituen beste eginkizun batzuetan aritzeko.

Gaztetan, Gabirian zegoela, saio batzuk egin zituen olerkigintzan. Orixeri erakutsi zizkion olerki haiek, eta Orixek Lizardiren ikutua zutela esan omen zion. Ez da lanahiko iritzia!

Ikerkuntzan ere gustura aritu zen Jose Mari, hartarako egokiera izan zuenean. Tamalez, berak nahi baino gutxiagotan izan zen hori, bestelako lanek hartzen baitzioten denborarik gehiena. Gramatika-gaiak aztertzea maite zuen, batez ere. Hori erakusten du K. Mitxelenaren gidaritzapean egin zuen tesinak: «*Bait- Tartasen Ontsa Hiltzeko Bidean*». Hori, halaber, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordean egindako lan bikainak ere.

Gramatika batzordearen emaitza nagusia *EGLU* laburduraz ezagutzen ditugun *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* liburuak dira. Taldelanean egindako liburuak dira horiek, atzean hamaika bilera, eztabaida, idazketa eta orrazketa dituztenak –eztabaida beroak eta biziak ez gutxitan–. Taldelan horretan batzordekideen izenak ezkutuan bezala geratzen dira askotan. Kapitulu edo atal bakoitzak, ordea, bere egilea du, bere txostengilea, lehen idazketa egin eta batzordearen aurrean irakurri ondoan, hango eztabaidetan jasotako ohar eta iradokizunen arabera berridatzi duena. Kapitulu gehienek, hain zuzen, hiru edo lau idatzaldi –edo are gehiago– izan dituzte, txostengileek eginak. Horretan ere aritu zen Jose Mari: ohar-egile liburuki guztietan eta txostengile batzuetan. Lehen liburukiaren eranskinean, esate baterako, *-ko* atzizkiak ari den kapitulurako txos-

tena berak idatzi zuen; eta bosgarrenean, orain arte argitaratu den azkenean, perpaus osagarrietako *ezen* lokailuaren erabilerari dagokion txostena egin zuen. Eta tartean beste batzuk.

Garaiz iristen zen beti bileretara. Donostian egin ohi ditu bilerak Gramatika baztordeak, eta urrutitik etorri arren, hantxe izaten zen bera, bertakoak baino lehen iritsia askotan. Batzordearen lanari zion begirunearen seinale, noski. Bileretan ez zen gehien hitz egiten zutenetakoa, horretan ere apala baitzen. Esan beharreko zerbait zue- nean, bazekien hitza eskatzen eta hartzen, jakina. Baina berariaz galdetu behar zitzaion askotan, bere iritzia entzungo bagenuen. Egitura edo esaldi bat zuzena ote zen zalan- tza genuenean, iritzia eskatzen genion, eta baita aintzat hartu ere gehienetan. Ziurtasu- na ematen zigun, euskararen ezagutza sakona baitzuen. Gipuzkera ez ezik, bizkaiera ere ondo menderatzen zuen, dakitenek aitortu dutenez.

Batzordeko beste lanetarako ere prest izaten zen beti. JAGONetik etorritako gal- derei erantzuteko, esate baterako, ez zuen inoiz laguntza ukatzen. Batzordeko idazka- riaren hitzak dira: «txosten bat prestatzea zela, besteren txosten bati oharrak egitea zela, inoiz gutxitan ikusi izan dut ezetz esaten, eta halakoetan, bere umiltasunagatik izaten zen gehiago, lanari ekiteko gogo faltagatik baino (“nik nola egingo dut ba halako txos- ten mardula?”), zen halakoetan esaten zuena)».

Lanbidez euskara-zuzentzailea zenez, euskara zuzena zuen gogoko. Nekez izango da egokia euskara, esaten zuen, zuzena ez bada. Maite zuen horrelako iruz- kinak egitea, bilera-tarteetan eta. Orain oso aipatuak, eta gaitzetsiak, diren *gol berri bat*, *falta garbia* eta horrelakoez aspaldi ohartua zen. Nola izango da, bada, gar- bia falta? –esaten zuen–, faltak gauza zikina dira beti. Behin, txosten bat prestatzen ari nintzela, gaiari zegokion Ebanjelioaren pasarte hau ekarri zidan: *Eta [hura] etxe- an zegoeneko berria zabaldu zen* (Mk. 2,1). Bibliaren bertsio horretako itzulpena oso egokitzat zeukan Jose Marik, baina testu horretan ez omen zuen itzultzaileak asmatu: zer da, izan ere, *etorri zeneko berria* hori, «noizko» berria? Ez, hor esan nahi dena da *etxean zegoelako berria* zabaldu zela. Beste behin serioxeago agertu zen: «Jesusen Nekaldia» «Jesusen grina» bilakatu omen zuen itzultzaile trakets edo bromazale batek, pasio mota batetik beste pasio mota batera salto eginez. Jose Mari, pasiotarra zena, hau da, *Jesusen Nekaldiaren* jarraitzaile, *Jesusen grinaren* jarraitza- le bilakatu zuen kolpe batez *traduttore traditore* hark. Beste behin eztabaida luzea izan genuen gure artean: Jose Mariren ustez, sarriegi erabiltzen omen dugu *beran- duago* hitza *geroago*-ren lekuan, erdarazko *más tarde* eta *plus tard* esaldien era- ginez. Bi lagun etorri badira berandu, orduan esan omen daiteke, bai, bat bestea bai- no *beranduago* etorri dela; bat *berandu* eta bestea *beranduago*, alegia. Baina lehenbizikoa ez bada berandu etorri, nola etorriko da bestea hura baino berandua- go? Nabardura asko aipatu ziren eztabaidan, *EGLU V*-eko 400. orritik aurrera jaso- ak geratu direnak.

Bestela ere lagundu zion Jose Marik Euskaltzaindiari. Beste bi batzordetan ere aritu zen, zekiena eskaintzen: Azkue Biblioteka batzordean eta Lexiko Ebazpen Fin- kapenerako batzordean –non, besteak beste, hitzen *Erorpenaz* izeneko txostena lan- du zuen–. Eta *Euskera* agerrikari lanak ere berak zuzentzen zituen.

Horregatik, bada, eta euskararen alde egindako lan guztiagatik, euskaltzain ur- gazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1986an eta ohorezko euskaltzain, merezimen-

du osoz, 2002an. Pozbide izango ahal zuen ordurako mendean hartua zuen gaixoaldian!

Ondo eta oparo egindako lanaren saria izan zen hura, euskararen alde aritzeko eta laguntzeko beti prest egon zen Jose Marirentzat.

*Donostia, 2005-IV-22*

*Jose Antonio Mujika*